5.2. CONEXIÓN A INTERNET
5.2. INTERNETEKO KONEXIOA



# ¿PARA QUÉ NECESITA MI EMPRESA ACCESO A INTERNET?

# ZERTARAKO BEHAR DU NIRE ENPRESAK INTERNETERAKO SARBIDEA?

*Internet se ha convertido en un medio que reúne a diferentes agentes de la sociedad: empresas, particulares, administraciones, asociaciones,...; actuando como un instrumento de difusión, colaboración e interacción que supera las barreras geográficas. Este carácter, y los servicios que Internet ofrece, representan para las empresas una oportunidad a la hora de incrementar su mercado y rentabilidad.*

*A continuación, se va a presentar un ejemplo ilustrativo de los beneficios que el acceso a Internet proporciona en el ámbito de las PYMES.*

*Gizarteko hainbat eragile elkartzen dituen baliabidea bihurtu da Internet: enpresak, partikularrak, administrazioak, erakundeak,...; zabalkundea, lankidetza eta elkarrekintza ahalbidetzen duen tresna bihurtu da, oztopo geografikoak gainditzen dituena. Ezaugarri horiek batetik, eta bestetik, Internetek eskaintzen dituen zerbitzuak, baliabide ezin hobea dira enpresentzat, beren merkatua eta errentagarritasuna handitzeko.*

*Hurrengo orrietan, ETEen eremuan Internetera sarbidea edukitzeak zer abantaila ekartzen dituen erakusteko adibide bat azalduko dugu.*

Karmele Uribarri es propietaria de una pequeña imprenta (tres personas empleadas) que realiza trabajos variados en diversos formatos; contando entre su clientela tanto con particulares como con empresas de la zona. Lógicamente, para poder hacer frente a un abanico destacado de servicios (impresión digital, realización de tarjetas y folletos, edición digital,...), se ha visto obligada a realizar fuertes inversiones en maquinaria específica y equipamiento; entre el que se encuentra un ordenador.

En los últimos tiempos, el PC ha alcanzado un protagonismo significativo dentro de la actividad de la imprenta. Cada vez es más la clientela que demanda trabajos en los que interviene el diseño gráfico (uno de los nuevos servicios de la empresa) y, por ello, la utilización de las aplicaciones informáticas de edición instaladas en el PC es continua. No obstante, este equipo no está conectado a Internet; Karmele Uribarri no "ve" ninguna utilidad práctica a esta medio, ni cree que pueda representar un avance para su empresa.

Karmele Uribarri inprimategi txiki bateko nagusia da (hiru langile ditu); era askotako lanak eta formatu askotakoak egiten dituzte inprimategian. Bezeroak ere era askotakoak ditu, batzuk partikularrak dira, beste batzuk, berriz, enpresak. Zerbitzu aukera handia eskaini ahal izateko (inprimatze digitala, txartelak eta liburuxkak, edizio digitala...), inbertsio handia egin behar izan du makina bereziak eta hornikuntzak erosteko, besteak beste, ordenagailu bat.

Azken urteetan, PCak oinarrizko lekua hartu du inprimategiaren jardueraren barruan. Gero eta bezero gehiagok eskatzen dituzte diseinu grafikoan oinarritutako lanak (enpresaren zerbitzu berrietako bat da hori), eta hori dela eta, etengabe instalatzen dira PCetan edizioko aplikazio informatikoak. Edonola ere, enpresako ordenagailua ez dago Internetera konektatuta; Karmele Uribarrik ez dio baliabide horri inongo erabilgarritasun praktikorik "ikusten", eta ez du uste bere enpresari aurrerapenik ekarriko dionik.

Sin embargo, cede a las "presiones" de su entorno más cercano (familia, empresas proveedoras, personas trabajadoras,…), y termina contratando un acceso a Internet; Le insisten en las ventajas de la utilización de este medio, pero en términos tan amplios o vagos que no acaba de convencerse. Una vez se encuentra en "marcha" la conexión, lal propietaria se apunta a un curso de iniciación a Internet: Karmele siempre ha defendido que la mejor forma de obtener rendimiento de la tecnología es a través de una correcta comprensión de su funcionamiento; anteriormente ya había realizado cursos de edición digital y, en esta ocasión, no iba a ser menor su dedicación...

Indudablemente, la formación recibida en las tecnologías y posibilidades de Internet termina de convencer a Karmele. Ya en la imprenta, no tarda en hacer uso de la conexión y explorar/explotar la Red… En este punto, y no sin cierto reparo, Karmele Uribarri y el citado "Grupo de presión" repasan el cambio que Internet ha supuesto para la actividad cotidiana de la imprenta:

- En primer lugar, a través del correo electrónico mantiene un continuo y fluido contacto con varias de las empresas proveedoras y clientela. Con las empresas, verifica y confirma ordenes de compara; y con la clientela, intercambia archivos de imágenes con los trabajos solicitados. En concreto, gracias al e-mail, ha conseguido ofrecer a su clientela un servicio de mayor calidad: anteriormente, cada vez que quería verificar con alguien de su clientela algún determinado trabajo digital, este persona, debía acudir a la imprenta y visualizarlo en el ordenador; ahora, se lo envía por correo electrónico, agilizándose así el trabajo y mejorando la satisfacción de la clientela.
- A la hora de realizar determinados diseños o composiciones en formato digital, es necesario contar con "contenido gráfico" (fotografías, gráficos, figuras,…). Este material Karmele siempre lo había obtenido de distintos catálogos en CD (comprados) gracias a Internet, puede acceder a inventarios de imágenes considerablemente más amplios e incluso adquirir ciertas imágenes de forma online… (ella misma se sorprende de este hecho: "… si incluso compro por Internet…")
- Búsqueda de información; Karmele aún sigue "deslumbrada" por la cantidad de información a la que puede acceder por medio de Internet. Sobre todo, la relativa a nuevos dispositivos específicos para imprentas o técnicas novedosas; ya que le encuentra una utilidad directa para su profesión.
- Su imprenta ya está registrada en distintos medios que le proporcionan publicidad online: directorios empresariales, espacios sectoriales,… (ella misma ejecuta los pasos necesarios a través de los formularios al efecto). Ya han sido varias las personas que han solicitado sus servicios tras ver sus anuncios; incluso empresas de zonas que la propietaria inicialmente consideraba fuera de su mercado natural.
- Las "colas" del banco parecen cosa del pasado…, Karmele ya no tiene que ir con cierta frecuencia al banco para verificar que ha percibido determinado ingreso, o para ejecutar cualquier orden de traspaso o transferencia. Todo esto lo puede realizar cómodamente desde su ordenador: las oficinas virtuales que las entidades financieras disponen para su clientela a través de Internet, permiten efectuar un gran número de consultas y operaciones.
- Etc.

Hala eta guztiz ere, inguru hurbileneko "presioen" aurrean (familia, enpresa hornitzaileak, langileak…), Karmelek amore eman du, eta azkenean, Interneteko sarbidea kontratatzea erabaki du. Baliabide horrek ekarriko dizkion abantailak aipatzen dizkiote behin eta berriro, baina azalpenak hain dira zabalak, ezen Karmelek ez duen behar hori argi ikusten. Konexioa martxan jarri ondoren, Karmelek Internet erabiltzen ikasteko ikastaro batean eman du izena: Karmeleren ustez, teknologiari errendimendu egokia ateratzeko, gauzen funtzionamendua ulertu behar da; aurretik eginak zituen edizio digitalari buruzko ikastaroak, eta oraingo honi ez dio denbora gutxiago eskainiko…

Azkenean, Interneten teknologiari eta aukerei buruz jasotako trebakuntzari esker, Karmelek onartu egin du tresna horren beharra. Inprimategian, berehala hasi da konexioa erabiltzen eta Sarea miatzen/ustiatzen… Une horretan, eta Karmelek hainbat zalantza baditu ere, berak eta aipatutako "presio taldeak" inprimategiaren eguneroko jardunean Internetek ekarri dituen aldaketak errepasatzen dituzte:

- Posta elektronikoaren bitartez, etengabe dago harremanetan enpresa hornitzaileekin eta bezeroekin. Enpresa hornitzaileekin erosketa agiriak egiaztatzen eta baieztatzen ditu; eta bezeroekin, berriz, eskatutako lanekin batera artxiboak (irudiak) trukatzen ditu. E-postari esker, bezeroei kalitate handiagoko zerbitzua eskaintzea lortu du: arestian, bezeroren batekin lan digital jakin bat egiaztatu nahi zuenean, bezeroak inprimategira joan behar izaten zuen eta ordenagailuan ikusi behar zuen lana; orain, posta elektroniko bitartez bidaltzen dio froga; era horretara, arindu egiten du lana, eta hobetu egiten da bezeroek zerbitzuarekiko duten iritzia.
- Formatu digitaleko diseinu edo konposizio jakin batzuk egiteko, ezinbestekoak dira "eduki grafikoak" (argazkiak, grafikoak, irudiak…). Material hori katalogoetatik lortzen zuen, CDetan gordetako katalogoetatik (erosi egiten zituen), hain zuzen; Interneti esker, irudi inbentario zabalagora jotzeko aukera du, eta zenbait irudi online erosi ditu… (bera ere harrituta dago horrekin: "…Internet bidez erosteko gai naiz…")
- Informazio bilaketa; Karmele "liluratuta" dago zenbat informazio lor dezakeen Internet bidez. Batez ere, inprimategietako tresna berriei buruzkoa edo teknika berritzaileei buruzkoa; bere lanbidearekin lotura zuzena duela, eta oso erabilgarria dela ohartzen baita.
- Inprimategia erregistratuta dago online publizitatea eskaintzen duten hainbat gunetan: enpresa direktorioak, sektoreko guneak… (berak egiten ditu horretarako urratsak, formulario berezien bitartez). Hainbat bezero etorri zaizkio zerbitzu eske bere iragarkia ikusi ondoren; baita Karmelek berak bere merkatu naturaletik kanpokotzat hartzen zituen inguruko enpresak ere.
- Banketxeko "ilarak" antzinako kontuak dirudite…, Karmelek dagoeneko ez du horrenbesteko maiztasunaz joan behar banketxera diru sarrera jakin bat jaso duen egiaztatzera, edo transferentzia agindu bat ematera. Hori guztia bere ordenagailutik egin dezake, oso modu erosoan: finantza erakundeek beren bezeroei, Internet bidez, eskaintzen dizkieten bulego birtualei esker, kontsulta eta eragiketa ugari egin ditzakete.
- Etab.



En este caso, Karmele no ha sido consciente de los beneficios ofrecidos por la Red hasta que ha contratado finalmente el acceso a Internet. A partir de entonces, ha comenzado a emplear de forma continuada la conexión; convirtiéndose prácticamente en una herramienta imprescindible para su trabajo.

Kasu honetan, Karmele ez zen Sareak eskaintzen dituen abantailez jabetu, harik eta Interneteko sarbidea kontratatu zuen arte. Ordutik aurrera, etengabe erabili du konexioa; eta ezinbesteko tresna bihurtu da bere lanean.





Internet como instrumento al alcance de cualquier empresa, presenta numerosos beneficios, y se convierte en una fuente o factor principal en:

- El incremento de la eficiencia interna en las empresas (agiliza numerosos procesos y posibilita otros no reproducibles mediante los canales tradicionales -compartir datos/archivos de forma inmediata-).
- La mejora de los procesos de interacción (contacto) con agentes participantes en las relaciones empresariales: clientela, empresas proveedoras...
- La ampliación de mercados.
- ...

Internet edozein enpresak eskuera duen tresna da, abantaila ugari ekartzen dizkio negozioari, eta oinarrizko iturri edo faktorea da honako alderdi hauei dagokienez:

- Enpresen barne eraginkortasuna handitu egiten da (hainbat prozesu arindu egiten ditu eta bide tradizionalen bitartez ezin egin daitezkeen beste hainbat gauza egiteko aukera ematen du –datuak/artxiboak partekatu-).
- Enpresaren harremanetan parte hartzen duten eragileekin elkarrekintza prozesuak (harremanak) hobetu egiten dira: bezeroak, enpresa hornitzaileak...
- Merkatua zabaldu egiten da.
- ...